

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko azaroaren 5a

98. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez gaitzesten baita Nafarroako Unibertsitatearen aurkako atentatua. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Cáritasekiko hitzarmena, gizarteratzeko etxebizitzetarako buruzkoa, ez berritzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumenaren gaineko eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako harrera-baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Vida Nueva elkartearen zentroko egoiliarrei, dirulaguntzei, ikuskariei eta jarduera lizentziari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Tuterako Ospitaleko onkologia unitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa. Erabaki proposamenak aurkezteko epea (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 30an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 18. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da. Hona testu berria:

“1. Ondoko inguruabarretako baten bat duten pertsonak ezin izanen dute inolako kontraturik egin foru lege honen menpeko entitateekin, eta lizitazio prozeduretatik kanpo geldituko dira:

a) Epai irmo baten bidezko kondena hartu izana elkarte ez-zilegietan parte hartzeagatik, nazioarteko transakzio ekonomikoetako ustelkeriagatik, eraginen trafikoagatik, funtzionario-eroskeria, iruzur eta legez kontrako ordainarazpenengatik, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituengatik, langileen eskubideen kontrakoengatik, bidegabeko erabilera, errezeptazio eta antzeko jokaerengatik, ingurumenaren babesari buruzko delituengatik, edo lanbidean, ofizioan, industrian edo merkataritzan aritzeko inhabilitazio bereziko kondena hartu izana..

Kontratatzeko debekuak pertsona juridikoak ere hartuko ditu, beren administratzaile edo ordezkariak haien kargu edo ordezkartzaren indarraldian arestian aipatu egoeran daudenean, pertsona juridiko haien izenean edo haien onurarako egindako jarduketan ondorioz edo delitu bakoitzaren kasuan subjektu aktibo izateko eskatzen diren baldintza, ezaugarri edo harremanak betetzen dituztenean.

b) Merkatuko diziplinaren arloko, lanbide arloko edo minusbaliatuen laneratzearen arloko arau-hauste larria edo lan arloko arau-hauste oso larria egiteagatik zehapen irmoa jaso izana, lan arloko edo laneko segurtasun eta osasunaren arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko apirilaren 7ko 8/1988 Legean xedatutakoaren arabera, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean xedatutakoarekin bat, edo ingurumen arlokoagatik.

c) Konkurtsoaren deklarazioa eskatu izana, konkurtsoaren deklarazioa jaso izana, edozein prozeduratan kaudimengabeziaren deklarazioa jaso izana, kontu-hartze judizialaren pean egotea, edo indarra duen konkurtso legeriaren arabera ezgaiturik egotea.

d) Indarra duten xedapenek ezartzen dituzten zerga ordainketak edo Gizarte Segurantzakoak gaurkoturik ez izatea, erregelamendu bidez ezarritako dagoenaren arabera.

e) Dirulaguntza publikoen arloko arau-hausteengatik irekitako administrazio prozeduraren ondorioz eta tributu arloko arauak haustearen ondorioz kontratatze debekua ekarri duen zehapen irmoa jaso izatea administrazio bidean.

f) Kontratu publikoei buruzko araudiaren mendeko edozein kontratu behin betiko suntsitzeko bide eman izana, suntsipenaren kausaren errudun deklaratu badituzte.

g) Kontratu publikoei buruzko araudiaren men-dean dauden entitateei faltsukeria larria egin izana araudi horretan edo hura garatzen duten arauetan eskatzen diren aitortpenak aurkezteko orduan.

h) Foru lege honen menpeko edozein entitate-rekin kontratuak egiteko desgaitzaren deklarazioan enpresaburuari ezarritako betebeharrak ez betetzea.

i) Espainiarrak ez, Europar Batasuneko kide diren beste Estatuetakoen enpresaburuak badira, lanbide edo merkataritza erregistro batean inskribatuta ez egotea enpresaburu horiek lanean diharduten Estatuako legeek ezarritako baldintzetan."

Zioak: Debekuen artean jasotzea ingurumen arloko delitu edo arau-hauste administratiiboetik heldu diren kondenak, bai eta, estatuko araudian jasotzen denari jarraikiz, lanbidean, ofizioan, industrian edo merkataritzan aritzeko inhabilitazio bereziko zigorra ere.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 49. artikulua aldatzekoa. Hona testu berria:

"49. artikulua. Kontratuak betetzeko eskakizun sozialak edo ingurumenaren arlokoak.

1. Administrazio klausula partikularren agirietan gizarte eta ingurumen arloko eskakizun zehatzak ezarri beharko dira oro har, kontratua betetzeko moduari buruzkoak. Eskakizun horiek ezin izanen dira ezkutuko zehaztapen tekniko, aukeraketa irizpide edo adjudikazio irizpide izan, eta bereizkeriarik ere ezin izanen dute eragin. Aitzitik, kontratua betetzeko gaitasun teknikoa duen edozein lizitzailek bete ahal izateko modukoak izanen dira.

2. Ingurumen arloko eskakizunak, kontratuaren ezaugarrien arabera sartu beharrekoak, ondokoe-tako bat edo batzuk izanen dira:

a) ontzi, bilgarri edo produktu erabiliak berreskuratu edo berriz erabili beharra, produktuak berriz erabil daitezkeen ontzietan ematea eta kontratistaren kargura hondakinak edo produktu erabiliak jaso eta birziklatzea.

b) Ingurumen-efizientzia handiagoko materialak eta produktuak erabiltzea: birziklatuak, birzikla-

garriak, berrerabilgarriak, ziurtagiri edo etiketa ekologikokoak, espezie autoktonokoak eta abar.

c) Produktu edo zerbitzuen efizientzia energetikoa eta eraikinen eta instalazioen diseinu bioklimatikoa.

e) CO₂ gutxiago isurtzen duten erregai edo energia-iturriak erabiltzea, ingurumen-eragin txikiagokoak edo berriztagarriak.

f) Kutsadura akustikoa murrizteko neurriak.

g) Ura aurrezteko edo hondakin-uren sorkuntzari aurrea hartzeko neurriak.

h) Ingurumenaren kalitateari buruzko plan bat taxutzea edo ingurumeneko arduradun bat izendatzea kontratua betetzean.

i) Gisako beste batzuk, kontratistari eskatzen zaizkion betekizunen arabera bidezkoak direnak.

3. Gizarte arloko eskakizunak, kontratuaren ezaugarrien arabera sartu beharrekoak, ondokoe-tako bat edo batzuk izanen dira:

a) Lana eman beharra luzaroko langabeei, kualifikaziorik gabeko gazteei, etorkinei edo talderik ahulenetako kideei nahiz enpleguari dagokionez zailtasun bereziak dituztenei.

b) Enpleguko egonkortasuna atxikitzea, kontratu mugagabeko langileen kopurua txikiena izaki.

c) Kontratistaren kargu antolatzea enpleguari dagokionez zailtasun berezia duten pertsonendako prestakuntza-jarduerak.

d) Sexuen arteko berdintasuna sustatzeko eta lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak hartzea.

e) Legez ezarritako kopurua baino pertsona ezgaitu gehiago kontratatu behar izatea kontratua betetzeko.

f) Produktu jakin batzuk bidezko merkataritzako edo elkartasuneko ekonomiako erakundeei erosi behar izatea.

g) Gisako beste batzuk, kontratistari eskatzen zaizkion betekizunen arabera bidezkoak direnak.

4. Baldintza-orriek edo kontratuak, eskakizun horiek betetzen ez direneko kasuetarako, kontratuaren prezioaren %20ko zigorra ezarri ahalko dute, edo kontratuko betebeharrak funtsezkotzat hartu ahalko ditu, kontratua suntsiaraztearen ondorioetarako, kontratistak bere erruz kontratua ez bete-tzeagatik, eta kontratistari foru lege honen babesean egiten den edozein lizitazio deialditan lizitatze eskubidea kenduko zaio, bi urterako."

Zioak: Manuaren testua hobetzea, halako moduz non gizarte nahiz ingurumen arloko betekizun horiek orrietako eduki normal eta eskatu beharrekoa izanen den, eta ez aukera hutsa, bai eta horien edukia zehatzago definitzea ere.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

51.3 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu dituen gainontzeko zuzenketen ondorioz, horren edukia ez da beharrezkoa. Idatzita dagoen bezala, nahasgarri bihurtzen du 49.1 artikulua edukia.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Proposamenaren artikulua bakarria aldatzeko zuzenketa; hona testu berria:

«Artikulu bakarria.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa. Hona testu berria:

“51. artikulua. Kontratuak esleitzeko irizpideak.

1. Kontratuak esleitzeko oinarritzko irizpideak honako hauek izanen dira:

a) eskainitako prezioa soilik.

b) gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari lotutako irizpideak erabiliko dira, hala nola kalitatea edo kalitatearen kontrolerako mekanismoak, prezioa, eskaintzaren balio teknikoa, ordeko produktuen eskuragarritasuna, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumen arloko ezaugarriak edo kontratatu beharreko prestazioen onuradun edo erabiltzaileak zein populazio-maila bereziki kaltetutakoak diren, horrexen beharizan berekiei –kontratuaren espezifikazioetan definitutakoei– erantzuten dieten gizarte-eskakizunak asetzeari lotutakoak, enpresaren gizarte- nahiz lan-baldintzak, funtzionamendu kostua, errentagarritasuna, salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa, emate data eta ematearen edo exekuzioaren epea, eta antzeko beste batzuk.

2. Kontratu eragin duen interes publikoa zein den, kontratazio organoek hartarako irizpide egokiak erabiliko dituzte. Eskainitako prezioa elementu erabakigarri bakarria bada, hura soilik erabiliko da esleipenerako irizpide gisa. Betiere emakida kontratuak eskaintza onuragarriari esleitu zaizkio.

3. Administrazio klausula partikularren orrietan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta bi lizitazioak edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean, berdinketa hausteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: langile ezinduen ehunekorik handiena duen enpresa, enpresako langileen 100eko 3k, gutxienez, ezgaitasunen bat baldin badu; halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, ezinduak laneratzeko programa edo zentroetatik heldu diren langile ezinduen kopuru handiena kontratatzeke konpromisoa hartu duen enpresa (halakoetan, konpromiso hori kontratuan sartuko da); eta halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, behin-behineko langileen ehunekorik txikiena duen enpresa, enpresaren plantillan behin-behineko langileak 100eko 10 baino gehiago ez badira.

Horretarako, kontratazio mahaiak edo kontratu kudeatzen duen unitateak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost eguneko epea emanen die agiriok aurkezteko.

Aurreko irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketak irauten badu, zozketaren bidez hautsiko da.”

Zioak: Testua hobetzea, esleipenerako gizarte-irizpideak jasotzen baitira gainontzekoekin batera 1. idatz-zatian, eta horietako zenbait mantentzen dira berdinketa hausteko irizpide gisa 3. idatz-zatian; izan ere, teknika horri esker, eraginkortasuna handiagoa izan daiteke. Foru legeko testu indarduneko 3. idatz-zatiaren testua aldatu da, zenbatzen zaila den irizpide bat aldatzeko; hartara, berdinketak hausteko arazoak eman ditzakeen irizpide baten ordean (genero arloko praktika onak egiten dituela frogatzea) aplikazio objektiboagoa bat jarri dugu (langile ezinduak kontratatzeke konpromisoa, eta konpromiso hori kontratuan sartu beharra), horren bidez bultzatzea baitaiteke zentro eta programa berariazkoetatik heldu diren pertsonen laneratzeari, askotan zaila izaten baita horietatik enplegu normalizatu batera jauzi egitea.

5. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

51. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“3. Administrazio klausula partikularren agirietan ezarritako adjudikazio irizpideak aplikatuta bilitatzailek edo gehiagok puntuazio berdina lortzen dutenean, berdinketa hausteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: langile ezinduen ehunekorik handiena duen enpresa, enpresako langileen 100eko 3k, gutxienez, ezgaitasunen bat baldin badu; halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, behin-behineko langileen ehunekorik txikiena duen enpresa, enpresaren plantillan behin-behineko langileak 100eko 10 baino gehiago ez badira; eta halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, genero arloko praktika onak egiten dituela frogatzen duen enpresa.

4. Kontratua esleitzeko irizpideen artean gizarte-ezaugarriak jaso ahalko dira, baldin eta kontratuaren xedeari lotzen bazaizkio eta eskaintzak dituen konparaziozko abantailak areagotzen badiuzte. Gizarte-ezaugarri horiek kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradun gisa azaltzen diren populazio-maila bereziki kaltetuen beharrianak ase beharko dituzte.”

Zioak: Eztatanda teknikoak gorabehera, uste dugu garrantzitsua dela kontratu publikoei buruzko egungo legeak gizarte-baldintzak jasotzea kontratazio publikoari begira. Halatan, gure ustez, baldintza horiek tresna egokia dira, administrazio publikoek sustatu egin behar baitute ekonomiaren, gizartearen nahiz ingurumenaren alorretan eragiteko duten ahalmena. Nafarroa Bairen ustez, gizarte-erantzukizun partekatuan datza oinarritzko ideia, eta kontratazio publikoa aparteko palanka dugu hori sustatzeko, sinergiak ezartzen baititu administrazio publikoen, merkataritzako enpresen, gizarte eragileen eta herritarren artean; horrek guztiak noski gizarte-erantzukizunaren lurraldera garamatza.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa, ondoko berritasunarekin:

“Administrazio klausulen eta agindu tekniko partikularren orrietan alde zurretik definituta, ondoko irizpideak jaso ahalko dira: kontratuaren xede diren obren, horniduren eta zerbitzuen onuradun edo erabiltzaileak zein populazio-maila

bereziki kaltetutakoak diren, horrexen beharrian berekiei erantzuten dietenak.”

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

51.3 artikuluari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Horra: “kontratua eragin duen interes publikoa zein den, kontratazio organoek hartarako irizpide egokienak erabiliko dituzte.” Horrela:

a) Eskaintako prezioa elementu erabakigarri bakarra bada, hura soilik erabiliko da esleipenerako irizpide gisa. Betiere emakida kontratuak eskaintza onuragarriari esleitzeko zaizkio.

b) 49. artikuluan jasotzen diren betekizunekin bat, eta administrazio klausula partikularren orrietan alde zurretik definituta, aurkeztu den eskaintzaren gizarte-ezaugarri buruzko irizpideak jaso ahalko dira.

c) Administrazio klausulen orrietan alde zurretik definituta, eta kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradun gisa azaltzen diren populazio-maila bereziki kaltetuen beharrianak asetzea helburu, beharrian horiei erantzuten dieten irizpideak jasoko dira.

Zioak: Proposatutako testuak konponbide egokia ematen dio zenbait helbururi. Lehenengo eta behin, 51.2 artikularen edukia jasotzen du, gizarte-klausulak izenekoak kontratazioan jasotzea helburu. Bigarrenik, bereizi eta aldi berean egoki lotzen ditu 49. artikuluko betekizunak eta 52. artikuluko irizpideak. Eta hirugarrenik, kontratugileari eskatzen dio gizarte-klausulak jaso ditzan, baina, hain espezifikoak izaki, soilik behartzen du c) letran xedatzen den kasuetan.

8. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

51.4 artikuluari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

51.3 artikularen testu indarduna jasotzea.

Zioak: Lege proposamenak ezabatzen duen berdinketa hausteko sistemari eustea, ordezko modura bada ere.

9. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria.

Foru lege hau indarrean sartu eta sei hileko epean, legea erregelamendu bidez garatzeko beharrezkoak diren arauak onetsiko ditu Nafarroako Gobernuak, kontratuak esleitzeko betekizun eta irizpide gisa legean aipatzen diren betekizun sozial edo ingurumenaren arlokoak aplikatze aldera.”

Zioak: Ingurumen arloko betekizunei buruzko beste zuzenketa batzuekin bat etortzearen.

10. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Foru legearen titulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Legea.”

Zioak: Beste zuzenketa partzial batzuekin bat etortzeko, 51. artikulua aldatzea proposatzeaz gain beste artikulua batzuk ere aldatzea proposatzen baita.

Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2008ko urriaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Pro-

posamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuen eta 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez gaitzesten baita Nafarroako Unibertsitatearen aurkako atentatua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak bilkura berezia egin dute eta honako adierazpen politikoa onetsi dute, Nafarroako unibertsitatearen aurkako atentatua dela-eta:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzesten du Nafarroako Unibertsitatearen aurkako atentatua; izan ere, kalte larriak eta zenbait zauritu eragin baititu, bai eta unibertsitateko ikasleen eta irakasleen izu-egoera ere, jarduera akademikoa erabatekoa den ordu batean.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesa adierazi nahi die atentatuko biktimei eta laster osa daitezela opa die, bai eta Nafarroako Unibertsitateko errektoreari eta unibertsitate-komunitate osoari, irakasleei eta ikasleei ere, unibertsitatearen campusaren erdian izandako eraso basatia dela-eta, biktimen kopuru handia eta bereizi gabea eragin zezakeen ekintza terroristak batean.

Hirugarrena.- ETAk bizitzaren, bakearen eta bizikidetzaren aurka ekintza egin du unibertsitateko bezalako eremu batean, non orenen gainetik askatasunaren eta aurrerabidearen defentsak lehentasuna izan behar duen, eta horren aurrean, Nafarroako Parlamentuak berretsi nahi du Nafarroako gizartearen aurrean terroristen jarduerak aurrean aurkituko dituela beti bizitzaren, giza eskubideen eta askatasunaren defendatzaileak. Era basatian, ETAk eraso egin dio Nafarroako kulturaren eta adierazpen zientifikoaren eta ikertzailearen ikur nagusienetako bati, eta horrek erakusten du zein zentzugabea den ETA talde terroristako hiltzaileek lortu nahi duten helburu.

Laugarrena.- Nafarroako Parlamentuak berriro aldarrikatu nahi du balio demokratikoen eta zuzenbide estatuaren defentsa, eta adierazten du sine-tsita dagoela indar politikoen ekintza bateratuak lortuko duela amaitzea nafarren aurrerapenaren eta askatasunaren aurkako atentatu hau bezalako ekintzekin.”

Iruñean, 2008ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Cáritasekiko hitzarmena, gizarteratzeko etxebizitzetarako buruzkoa, ez berritzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Cáritasekiko hitzarmena, gizarteratzeko etxebizitzetarako buruzkoa, ez berritzeko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Cáritas-ekin gizarteratzearen alorrean

sinaturiko hitzarmenari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

1- Zergatik ez da berritu gizarteratzeko etxebizitzetarako buruzko hitzarmena Cáritasekin?

Iruñeko eta Tuterako Cáritasekin 2007ko martxoaren 12an sinaturiko hitzarmenak lau urteko iraupena dauka (2010eko abenduaren 31ra arte); beraz, hitzarmena gaur egun indarrean dago.

Beste kontu bat da entitateak adierazi izana ez duela asmorik 2008an jarduerarik egiteko.

2- Zenbat familiak baliatzen zuten urtero hitzarmen hori? Zein herritan zeuden etxebizitzetarako horiek?

Azken urteotan gauzatu diren jarduketak honakoak izan dira:

Entitatea	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Iruñeko Cáritas	19	12	12	7	5	1
Tuterako Caritas	3	-	-	-	-	-

Jarduketa bakoitza familia bati dagokio.

Hona horien banaketa herriz herri:

Andosilla	1	Cárcar	1
Agoitz	1	Cintruénigo	1
Arbeitza	1	Cortes	1
Arroitz	1	Elizondo	1
Azagra	2	Lizarra	2
Berriozar	1	Faltzes	1
Buñuel	1	Funes	1
Cadreita	1	Larraga	3
Caparroso	1	Lerga	1
		Lerin	2
		Lodosa	7
		Irunberri	1

Mendabia	2
Milagro	1
Murieta	1
Murillo el fruto	1
Oko	1
Olazti	1
Iruña	2
Azkoién	1
San adrián	4
San martin	1
Sesma	1
Tutera	7
Valtierra	2
Villafranca	1
Villatuerta	1
Guztira, orokorrean (2002-2007)	59

3- Etxebizitza Departamentuak ba al du asmorik babes ofizialeko etxebizitzak berariaz erreserbatzeko gizarte bazterkerian bizi diren familientzat?

Legebiltzarrak ongi dakienez, baremoan –Etxebizitzari Babes Publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeak arautzen du– ez dago jasota babes ofizialeko etxebizitzak berariaz erreserbatuko direnik, gizarte bazterkerian bizi diren familiek eskura ditzaten, nahiz eta hori ez den eragozpen

egiten diren hurrengo lege-aldaketetan erreserba hori sartzeko. Dena den, gizarte bazterkerian daudela jo daitezkeen pertsona batzuek bai eskuratzten dituzte alokatzeko eraikitako etxebizitza babestuak, ordaindu beharreko errentaren %75era ere heltzen diren dirulaguntzekin.

4- Plan horrek zergatik ez du funtzionatzerik izan azken ekitaldian?

Programak azken urteotan izan duen zailtasun nagusia izan da salneurriek gero eta zailagoa egiten dutela etxebizitzak topatzea programak baimenduriko salerosketa-prezio gehinezkoetan (1.080,25 euro metro koadro erabilgarri bakoitzeko, 2008an).

Hori horrela izanik, eskuratu diren etxebizitza gehienak Iruñeritik kanpo daude, eta ohartarazi da eskuratutako etxebizitzaren baldintzak okertuz doazela etxebizitzaren salneurrien gorakadak etxebizitza eskuragarria topatzea zailtzen duen neurrian.

Bestalde, zaila suertatzen zaie erosle batzuei hipoteka-maileguak emateko prest dauden finantza entitateak topatzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 18an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumenaren gaineko eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumenaren gaineko eraginari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumen-inpaktuari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Proiektuaren ezaugarriak ikusirik, eta sustaizaila Estatuko administrazioko erakunde bat denez, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioari dagokio ingurumen arloko izapideak egitea. Ministerio horrek, proiektuari ingurumen eraginaren azterlana egin behar ote zitzaion

erabakitzeko fasean, zenbait kontsulta egin dizkio departamentu honi.

Hori horrela, jakinarazi behar dut 2008ko martxoaren 31n jaso zela Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusian “20080075Urb. Iruñeko Espetxearen Eraikuntza” izeneko proiektuari buruz kontsultak egiteko dokumentua. Hori “Infraestructuras y Establecimientos Penitenciarios” estatusozietateak (SEIP) sustatu zuen, proiektua ingurumen eraginaren azterlanari egokitu behar zaion ala ez zehazte aldera.

Hona Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiak apirilaren 30ean emaniko erantzunean adierazitakoa:

“Zuzendaritza Nagusi honek aztertu ditu proiektaturiko jarduketaren ezaugarriak, eta bat dator urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko III. eranskineko 2. puntuan jasotako

irizpideekin (Proiektuen kokalekua); dekretu horren bidez onetsi zen Proiektuen Ingurumenaren Gaietako Eraginaren Ebaluaziorako Legearen Testu Bategina, zeinaren arabera, espedienteari ingurumen eraginaren azterlana egin behar baitzaio; izan ere, espediente hori aurreikusitako baldintzetan betetzeak aldaketa esanguratsuak eragin ditzake aztertutakoa baino handiagoa den esparru batean, Santaluziagaña osoan hain zuzen, hala paisaia-balioetan nola aurreikusitako erabileretan”.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako harrera-baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako harrera-baliabideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 30eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako harrera-baliabideei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Ioseba Ezeolaza jaunak ondoko galdera hauek egin ditu aipaturiko gaiari buruz:

Zer baliabide publiko daude eskueran helduen laguntzarik ez duten haur etorkinei harrera egiteko?

Nafarroako Foru Komunitatean helduen laguntzarik ez duten haur etorkinei harrera egiteko eskueran dauden baliabide publikoak arrisku egoeran dagoen edozein adingaberi laguntzekoak adina dira:

– Behaketa eta harrerarako baliabideak, COA, arrisku egoeran dauden 0tik 14 urtera bitarteko adingabeentzat.

– Behaketa eta harrerarako baliabideak, COA, arrisku egoeran dauden 14tik 18 urtera bitarteko adingabeentzat.

Adingabe bakoitzaren egoera zehatzaren arabera, adingabea familia edo barnetegi batera bidaltzen da.

Barnetegien kasuan, 179 toki itundu ditugu erakunde ezberdinekin, eta laguntzako etxebizitzetan eta harrera-egoitzetan daude banatuak.

Gainera, gehiago zehazteko eta, izenpeturiko lankidetzaren hitzarmen baten esparruan, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak eskatuta baliabide bat sortu zen Lizarrako Merindadean, Kanarietatik helduen laguntzarik gabe heldutako haur etorkinen talde bat hartzeko. Baliabide hori abian da 2007ko maiatzetik.

Mota horretako zenbat haur hartu beharra dago Espainian eta Nafarroan?

Departamentu honek ez dauka daturik Espainiari dagokionez. Jakinarazi daiteke gaur egun helduen laguntzarik ez duten 16 haur etorkin daudela

gure haurrak babesteko sistemaren barnean, eta harrera-egoitzetan daude.

Iruñean, 2008ko ekainaren 11n.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Vida Nueva elkartearen zentroko egoiliarrei, dirulaguntzei, ikuskapenei eta jarduera lizentziari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Vida Nueva elkartearen zentroko egoiliarrei, dirulaguntzei, ikuskapenei eta jarduera lizentziari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 30eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Vida Nueva elkartearen zentroari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Aipaturiko elkarte delata eta, Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak ondokoei buruzko galderak egin ditu: elkarteak Ziritzako zentroko egoiliarrei eskaintzen dien arreta, zentroari ematen zaizkion dirulaguntzak, zentroaren "jardueraren lizentzia" eta zentroari eginiko ikuskapenak.

Lehenik eta behin, ulertzen dugu galderan aipaturiko "jardueraren lizentzia" horrek egiazki erreferentzia egiten diola gizarte zerbitzuetarako zentro bezala jarduteko baimenari, departamentu honen eskumenen artean dagoen baimen bakanari. Hori horrela, hasteko esan beharra dago baimen hori Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak abuztuaren 2an emaniko 222/2006 Ebazpenaren bidez eman zela.

Zentroak eskaintzen duen arreta sistemari dagokionez, jarraian jaso dugu elkarteak berak

baimen eskaerarekin batera aurkeztu zuen txosteneari adierazitakoa:

"1) Erabiltzaile mota:

Zailtasun sozial eta familiakoak eta zailtasun psikosozialak dituzten pertsonak (edozein gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonak –alkoholismoa, droga-menpekotasuna, buru-osasuneko arazoak, gizarte-moldagabezia, familia desegituraketa eta abar– horien gizarteratze egoia eta iraunkorra lortzeko).

2.- Metodologia

Oro har, eta artatzen diren arazo ezberdin guztientzat, metodologia honela aplikatzen da, barne-tegi araubidean nahiz kanpoko araubidean:

A) Zentroan bertan dagoen familia-ingurune terapeutiko batean; horrek maitasuna ematen dio egoiliarrari eta bertako kidea dela sentiarazten dio, eta arau-sistema bat ere ezartzen du, ondokoa ahalbidetzen duena:

Egoiliarrarentzat:

1) Erreferentziazko marko bat eta portaeraredu batzuk; horiek lagunduko diote balio jakin batzuk bereganatzen eta bere jokaeren mugak ezagutzen.

2) Bilakaera egoki baten arabera areagotuz doazen erantzukizunak bere gain hartzea; horrek lorpenaren, autonomiaren eta gaitasun individual eta sozialaren sentsazioa emanen dio.

3) Gizarteratze prozesua erraztea, bere jokabiderako eta pertsonen arteko harremanetarako kode etikoak bereganatzen dituelako.

4) Erabakiak hartzeko laguntza, definitutako jarraibide batzuk ematen zaizkiolako.

Esku hartzen duten arduradunentzat

1) Beren eginkizunak dakarren betebeharrak eta ardura hori aplikatzeko aukera ematen die.

2) Tresna horrek giro ona mantentzen laguntzen die esku hartu ahal izateko, eta taldearen segurtasuna eta haiena ere bermatzen ditu.

3) Arauetan oinarrituz eta horiek betetzen direla bermatuz, liskar antzuak, botereagatik borrokak eta estresagarriak diren egoera pertsonalak saihesten dituzte.

Zentroarentzat

1) Helburu komun lorpenean aurrera egitea.

2) Zentroko elkarbizitza baketsua hobetzea, egoiliarren artean segurtasuna eta errespetua bermatuz, haien arteko ezaugarri ezberdinak direla eta –aniztasun etnikoa, soziala, kulturala, adin-koa eta bakoitzak dituen arazoena–.

3) Erreferentziazko marko komun bat izatea, inguruan eta familiekiko harremanetan gertatzen diren gatazkei era orokor batean aurrea hartzeko eta heltzeko. Ezinbestekoa da egoiliarrek berak eta bere senitartekoei zentroko arauak ongi eza gutzea onartuak izan baino lehen.

B) Pertsonalizatutako esku-hartze direktibo baten bidez, maila kognitiboan nahiz jokabide mailan.

C) Integrala izan nahi du, pertsonarentzat oinarritutakoak diren alor guztiei eragiten baitie. Ondokoak dira alor horiek:

- Maitasunaren eta autoestimuen alorra.
- Harreman pertsonalen alorra, ondokoak nabarmenduz: gatazken identifikazioa eta konponketa, bai eta jokabide asozialak eragiten dituzten esperientzia pertsonalena ere.
- Balio moralen eta funtsezko printzipio positiboaren alorra.

D) Metodo inductibo eta direktibo baten bitartez; horrek, lehenik eta behin, aldaketa pertsonala eragiten du, bigarrenik gizarteratze positiboa eta

azkenik gizarteratze hori mantentzea kasuan kasuko ingurunean.

E) Aldaketa horiek ezartzen dira ondoko printzipio hauek egunero aplikatuz: autoritatea, obediencia, errespetua, gardentasuna harremanetan, zuzentasuna, diziplina, pertsona baldintzarik gabe onartzea eta pertsonak zentroan duen balioaz eta kidesunaz ohartzea.

Metodologia horren aplikazioak aldaerak ditu, artatutako problematikaren eta esku-hartze programa bakoitzaren arabera.”

Bestalde, zentroari eginiko ikuskapenei dagokienez, adierazi behar da behin baimena eman ostean, zentroak 6 ikuskapen izan dituela; zehazki, ondoko egunetan:

- 2006ko maiatzaren 19an.
- 2007ko urtarrilaren 17an.
- 2007ko martxoaren 6an.
- 2007ko maiatzaren 8an 2 ikuskapen egin ziren.
- 2008ko otsailaren 7an.

Azkenik, elkarte horrek jaso dituen dirulaguntzei dagokienez, adierazi behar dugu urtarrilaren 14ko 11/2008 Foru Aginduaren bidez onartu zela gizarteratze alorrean diharduten irabazi asmorik gabeko entitateei 2008rako dirulaguntzak emateko deialdia.

Deialdi horretara aurkeztu da, aurreko urteetan ere egin duenez, Vida Nueva elkarte, beste hogeita lau erakunderekin batera. Elkarte horrek deialdi oinarrietan arauemailetan jasotako baldintzak betetzen ditu eta, bere eskaera norgehiagoka bidez balioetsi ostean, 24.000 euroko dirulaguntza jaso du aurkeztu duen proiekturako: “Programa de inserción para personas en exclusión social”.

Iruñean, 2008ko ekainaren 11n

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Tuterako Ospitaleko onkologia unitateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Tuterako Ospitaleko onkologia unitateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Tuterako Ospitaleko Onkologia Unitateari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Onkologia Unitateak, 2002an abian jarri zenetik, nabarmen hobetu du Tuterako Barrutiko gaixo onkologikoei eskainitako arreta. Horien irisgarritasuna hobetu du, bereziki kontuan hartzen badugu tratamendu luze eta, batzuetan, gogorretara lotuta dauden gaixoei buruz ari garela; horientzat oso garrantzitsua da onkologoarengana iritsi ahal izatea.

Hona unitate horrek 2007. urtean eginiko jarduketak:

Tratamenduak	847
Lehenengo kontsultak	82
Hurrengo kontsultak	435

Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzua bi zerbitzutan bereizi zen 2004an: Onkologia Medikoko Zerbitzua eta Onkologia Erradioterapikoaren Zerbitzua, eta Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Onkologia Unitatea Nafarroako Ospitaleko Onkologia Medikoko Zerbitzuaren menpe geratu zen. Unitate horren funtzionamendua bikaina izan da, eta kalitate handiko zerbitzua eskaini die Tuterako Barrutiko gaixo onkologikoei. Alabaina, eta Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Onkologia Unitateak Nafarroako Ospitaleko Onkologia Medikoko Zerbitzuekiko duen menpekotasun harremana sendotze aldera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak 801/2008 Ebazpena sinatu zuen 2008ko maiatzean. (Kopia erantsi da).

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-07/PES-000114 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:
<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa.


ERABAKI PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2008ko urriaren 29an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari erabaki proposamenak aurkezteko epea 2008ko azaroaren 19ko eguerdiko hamabietan bukatuko

dela. Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2008ko irailaren 24ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	